

NERE ESKUEN KANTUA

Errepika :

**Nere eskuen kantua da ;
zernahi badakit, begira,
zernahi badakit, begira :**

Txalo egiten dut maiz nik,
zerbait eder gozaturik,
fereka batzuk eginik,
goxatu nahi dutalarik.

Errepika.

Zartako bat eman nahirik,
zer duk, esku, ez haiz pozik?
Marrazki bat, zoin gogotik,
eskaintzen dautzut dohainik.

Errepika.

Musu bero bat, zengatik?
Kantu hau bururaturik,
gordetzen naiz zuenganik.
Bihar arte, ez adiorik...

Errepika (bis).

Ne-re es-ku-en kan-tu-a da zer-nahi ba-da-kit, be-gi-ra zer-nahi ba-da-kit be-gi-ra .

Txa-lo e-gi-ten dut maiz nik zerbait e-der go-za-tu-rik, fe-re-ka bat-zuk e-gi-nik go-xa-tu nahi du-ta-la-rik .

HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Kantua ikasi eta zuzen kantatu.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Autonomia erakutsi espazioan, gauzei eta jendeei buruz ; bere gorputza ezagutu ; jokamoldea iharduerei egokitu; gorputz trebetasuna erakutsi.
MUNDUAN IHARDUN. Motrizitatea landu mimatuz). Mugimenduen koordinaketa landu.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Oinarrizko egintzen hautu zabalena erabili (ibili, jauzi egin, bultzatu, tiratu,...). ◆ Egintzen burutzerara ausartu. ◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu. ◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere.
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. Lexikoa landu.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. ◆ Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan. ◆ Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili. ◆ Aditzen denboraldiak, izenordeak eta lokailuak aldatuz erabili. 	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz. ◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. ◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
ELGARREKIN BIZI.	<ul style="list-style-type: none"> ◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu. 	

USTIAPENA (egin moldea)

Haurrek kantua antzezten dute, errondan jarririk.

*Nere eskuen kantua da
zernahi badakit, begira ⇒
zernahi badakit, begira :*

Txontxongiloen
mugimendua egin.



*Txalo egiten dut maiz nik
zerbait eder gozaturik,
fereka batzuk eginik
goxatu nahi dutalarik*

⇒

Eskuak jo.

⇒

Esku batekin beste eskua ferekatzen dute (edo ondoko lagunarena).

*Zartako bat eman nahirik
zer duk, esku, ez haiz pozik ?
marrazki bat, zoin gogotik,
eskaintzen dautzut dohainik.*

⇒

Haurrak alegia egiten du zartako bat ematen diola bere buruari.

⇒

Marraztea antzezten dute.

⇒

Bi eskuekin eskaintza antzezten dute.

*Musu bero bat, zergatik ? ⇒
Kantu hau bururaturik,
gordetzen naiz zuenganik.
Bihar arte, ez adiorik.*

⇒

Haurrek musu bat igortzen dute eskuarekin

eta agurra eginez, eskuak gordetzen dituzte bizkar gibelean.